



GABONETAKO XXXVI. IDAZLAN LEHIAKETA

URRETXU eta ZUMARRAGA 2024

Urretxu eta Zumarragan, 2024ko abenduaren 5ean, honako erabakia hartu du Idazlan Lehiaketako epaimahaiak:

ERABAKIA:

Saridunen izenak zeintzuk diren esan aurretik epaimahaiak ondokoa adierazi nahi du:

1. Maila batean zein bestean **partaidetza oso zabala** izan da eta lan askoren maila bikaina. Hori dela eta, benetan zaila izan da maila bakoitzeko hiru lan onenak aukeratzea.
2. Saririk gabe geratu diren **lan asko eta asko maila oso handikoak** izan dira baita ere, baina azken irakurraldian xehetasunetan jarri da arreta eta horrela hartu da azken erabakia. Edozein kasutan, lan batzuk saritu eta besteak saririk gabe uztea ez da erraza izan.
3. Epaimahaiak bereziki **zoriondu** nahi ditu lehiaketan parte hartu duten haur guztiak, eta baita beraien gurasoak eta eskoletako irakasleak ere, haur horiengan idazteko zaletasuna sustatu eta bultzatzeagatik. Beste behin ere argi geratu da Zumarragan eta Urretxun maila handia dagoela eta hori bereziki poztekoa da, are gehiago lehiaketa honetara aurkeztu diren ipuin guztiak **euskaraz** idatziak izan direla kontuan hartuz.

A. Taldea (L.H.ko 3. eta 4. mailakoak)

234 idazlan aurkeztuta

GAIA: "Egun hartan pozik abestu genuen guztiok batera."

1. saria: Oihan Parra Agirre (*Gabonetako antzerkia*)
2. saria: Enar Arizkorreta Elgarresta (*Amonaren etxera gabonetan*)
3. saria: Aratz Ojanguren Amondarain (*Txomin, mokorik gabeko txoria*)

B. Taldea (L.H.ko 5. eta 6. mailakoak)

228 idazlan aurkeztuta

GAIA: "Keinu txikien bidez posible da mundu hobea bat eraikitzea."

1. saria: Luca Alvarez Artolazabal (*Bizilagunak*)
2. saria: Aster Iglesias Fincias (*Gabonetako elkartasuna*)
3. saria: Irati Lasa Ormazabal (*Aurten ez dut jostailurik nahi*)

Eta horrela jasota gera dadin, akta hau izenpetzen dute.

GABONETAKO ANTZERKIA

Bazen behin Enai izeneko neskato bat, Euskal Herrian bizi zen bere aitonaekin. Enaiek 14 urte zituen, oso polita zen eta ile horia zuen, Enai oso bihotz onekoa zen. Enaiek Eros izeneko lagun bat zuen. Eros, altua eta morenoa zen baina batzuetan jeloskor jartzen zen, bestela oso txintxoia zen. Gainera, biak abeslariak ziren. Enai eta Eros bizi ziren herriko basoan, sorgin bat bizi zen. Sorgina, amona zahar bat zen eta oso misteriotsua ere bai.

Egun batean, Enai eta Erosi deitu egin zioten ea nahi zuten Bizkaiara joan Gabonetako antzerki oso garrantzitsu batean parte hartzera eta baiezkoa izan zen Enaien lehenengo erantzuna.

- Zergatik da oso garrantzitsua antzerkia? - Galdetu zuen Erosek.
- Bestela gabonak desagertu egingo dira. - Erantzun zuen telefono deikoak.

Oso pozik zeuden Enai eta Eros, azkenean, antzerki garrantzitsu batean abestu egin behar zutelako. Kontzerturako bidean zeudela pozik abesten hasi ziren baina bat-batean Enai ahots gabe geratu zen . Oso urduri zeuden, ez zekiten zer egin eta Enaiek basoko liburu bat aurkitu zuen eta irakurtzen hasi ziren. Irakurtzen ari zirela, aurkitu zuten sendabidea. Bat batean, "basoko sorgina!", ohiukatu zuen erosek.

Orduan basora abiatu ziren. Pixka bat geroago, basora iritsi ziren eta sorginaren etxean sartu ziren. Sorginari dena azaldu zion Erosek eta sorginak lagunduko ziela esan zien, baina, baldintza batekin. Mendira joateko esan zien, orduan mendira joan ziren, aldapa igo zuten eta sendabelarrak hartu zituzten.

Sendabelarrekin bueltatu ziren aldapan behera eta sorginaren etxera joan ziren.

- Ekarri dituzue! - Esan zuen sorginak.
- Bai. - Erantzun zion Erosek.

Edabea prestatzen hasi zen sorgina eta bukatu zuenean, Enaiek edan eta "plas" batean ahotsa bueltatu zitzaion. Oso pozik jarri ziren, Enai batez ere.

- Antzerkia! - Ohikatu zuen Enaiek eta korrikan joan ziren antzerkira.

Ondo iritsi ziren eta antzerkian abestu zuten eta egun hartan pozik abestu zuten guztiok batera.

Izen-abizenak: Oihan Parra Agirre

Adina: 9 urte

Maila: 4. maila

AMONAREN ETXERA GABONETAN

Gabonetan gaude.

Kalean herriko guztiak elkarrekin ginen. Nere amaxo eta ni gabonetako arroparekin geunden berdea eta gorria.

Denok oso pozik geunden eta abesten hasi ginen. Abesti asko abesta genituen gabonetakoak. Bukatu zenean amonaren etxera joan ginen familia osoa amonaren etxera iritsi ginenek amona ahaztu egin zen etorri egin behar ginela. Orduan jantziak ez zegoen.

Eta niri ideia, bat bururatu zitzaidan. Denok jantzia elkarrekin badugu? ideia onak iruditu zitzaizun eta denek etxetik zenbait elkarrekin ginen, eta denek elkarrekin hasi ginen bazkaria egiten. Poz-oz abesten hasi ginen denok bazkari goxoak prestatzen ginen bitartean eta oso ondo pasatu genuen pozik abesta genduen denok abesti bat abesten.

Izen-abizenak: ENAR ARIZKORRITA ELGARRESTA

Adina : 8 Maila : 3

TXOMIN, MOKORIK GABEKO TXORIA

Bazen behin txori bat Txomin deitzen zela. Txomin moko gabe jaio zen. Oso lotsatia zen eta oso sentikorra. Egunero ikastolara joaten zen baina ez zituen lagunik, horregatik bakar-bakarrik sentitzen zen.

Lehenengo mailara iritsi zenean, Martxelo izeneko mutil batekin elkartu zen. Txominen aurpegia ikusi zuenean barrezka hasi zen. Bera oso haserre zegoen baina oso lotsatia zenez ez zuen ezer ez esan. Egoera hau denboran zehar asko luzatu zen. Baina egun batean bere aitari eman zion egoera honen berri eta bere aita asko haserretu zen. Orduan aitari ideia bat bururatu zitzaion: egurrezko moko bat egin zion burla gehiago ez egiteko eta gabonetan kantatzeko. Hurrengo egunean ikastolan inorrek ez zion barre gehiago egin eta Txomin oso pozik jarri zen. Eta pila bat eskertu zion bere aitari.

Gabonak iritsi ziren eta hurrengo egunean kantatzera irten behar zuten. Baina Txominek oso urduri oso urduri jarraitzen zuen. Orduan etxean abesten hasi zen eta konturatu zen oso ondo kantatzen zuela. Horrek lasaitu egin zuen. Eta hurrengo egunean pozik kantatu zuten guztiok batera.

Izenak eta abizenak: Aratz Ojanguren Amondarain

Adina : 9 urte

Maila : LH4

BIZILAGUNAK

Velazartarren etxean bizi naiz. Beti dut zizare bat ipurdian segika, anka txikiak ditut eta munduan ile gehien duen pertsonak baino bibote luzeagoak ditut.

Nik asko laguntzen dut. Mundu hobe bat eraikitzeko keinu txiki asko egiten ditut, baina jendeak ez du ulertzen.

Joan den astean erreko zaborra jan eta garbitu egin nuen. Gora eta behera ibili nintzen plastikoa, aterkiak eta abar aurkitu nituen eta kriski kraska denak jan nituen. Eta beraiek pertsonak nola eskertu? pozointzeko pastilak ematen.

Astehenean bidegorrian atera nintzen. Eta bertan zegoen pertsona bat korrika hasi zen ni ikustean sustoa hartu zuelako, kirola egiten lagundu nion.

Atzo pantailari itsatsita ikusi nituen mutikoak. Kablei koska egin nien, pantailak begiratzeari uzteko, eta nola eskertu zidaten? Etxetik botatzeko bilerak egiten.

Guk elkarrekin bizitzeko arauak beteko ditugu baina zuék ere egin keinu txiki bat eta ez deitu Hamelingo txirulariari, ez gera arratoi alaenak. Zuen bizilagunak gara.

Luca Alvarez Artola Zabala

10 urte . LH5

AURTEN EZ DUT JOSTAILURIK NAHI

Gabonetako oporrak hasi berri ziren. Jende guztia ikastolatik irteten ari zen, abenduak 21a zen, hiru egun falta ziren Gabonetarako. Ni han nengoen, poz-pezik amarengana korrika batean besarkada bat ematera nindoan. Nire izena Xuarbe da eta 8 urte ditut eta oso gogoko dut jendea laguntzea. Bat-batean, kotxean gindoazela, pentsamendu arraro bat etorri zitzaidan burura, oparietan pentsatzen ari nintzela izan zen, eta pentsatu nuen: aurten lagundu egingo dut. Gau artan petxatzen hasi nintzen, Afrikari, Palestinari, Balentziari, Ukrainiari... lagundu baina orduan bururatu zitzaidan pobrezia dagoen herri eta hiri guztiei laguntzea. Baina arazoa zen nola egin behar nuen. Momentu artan nire ama gerturatu zitzaidan eta esan zidan: -Xuarbe, aurten zer eskatu behar diozu Olentzerori?- Orduan ideia oso on bat bururatu zitzaidan: Olentzero eta Mari Domingiri opariak beharrean laguntza eskatzea. Momentu artan pentsatzen asi nintzen zer idatzi, eta pentsatu nuen: Kaixo Olentzero eta Mari Domingi, aurten ez dut oparirik nahi, aurten lagundu egin nahi dut eta galdetuko duzue zeini eta nik erantzuten dizuet Afrikari, Palestinari, Balentziari, Ukrainiari... Herrialde horiek, arazoak dauden herrialdetan nahi dudana da, zuen magia eta sendabelarrekin niri laguntzea, muxu handi bat Xuarbe. Hori idatzi ondoren Olentzero eta Mari Domingiren etxera abiatu nintzen. Han nengoela bere postontzian sartu nuen.

Geroxeago etxean nengoela telebista ikusten albiste bat sartu zen esaten zuena: -Azken orduko albistea, basoko baserritarrek esan digute ezezagun bat ikusi dutela, esan diguten bezala neguko arropa gorria zuen, txapel batekin, baina baserritarrek esan digute ez zela guk erabiltzen ditugun horietako bat, argitxorena bezala zela, eta okerreana da Olentzero eta Mari Domingiren postontzia zuela!- Orduantxe bertan telebista itzali nuen. Pentsatu nuen: Orain zer egingo dut, nire postala hor barruan dago! Konturatu nintzen postal hori oso garrantzitsua zela, bai niretzat eta bai mundu guztiarentzat. Zerbait pentsatu behar nuen, oso urduri jarri nintzen. Orduan erabaki nuen Olentzero eta Mari Domingiri laguntza eskatzea, eta korrika batean berahien txabolara gerturatu nintzen berriz ere. Han nengoela, atea jo nuen: tok-tok-tok, ba al dago inor, laguntza behar dut, oso larria da. Segituan atea ireki zidaten, eta esan zidaten:

-Zer gertatzen zaizu txiki?-

eta nik erantzun nuen: -ba, gaur, postal bat ekarri dut eta...-

-Eta zer txiki?- esan zidan Olentzerok.

Eta nik erantzun nuen: -Postontzia desagertu egin dela edo hobeto esanda lapurtu egin dutela.-

Orduantxe bertan Olentzero urduri jarri zen, eskerrak Mari Domingik lasaitu zuela. Ohartu nintzen berahientzat ere hori oso larria zela, eta elkarlana egin behar genuen arazo hori guztia konpontzeko. Esan nien ni prest nengoela beraiei laguntzeko baina ezetz esan zidaten. Baina lagundu egin nahi nuen konbentzitzen saiatu nintzen, eta azkenean utzi egin zidaten. Ondoren esan nien, informazioa telebistan eman zutela, baina esan zidaten ez zeukatela telebistarik, baina bazituzten botereak, orduan koaderno bat atera eta han gertatu zen guztia apuntatu zuten berahien botereekin. Informazio guztia zuten: nolakoa zen, nola jazten zen, nondik joan zen, heldua edo umea zen... lehenengo bere pausuk jarraitzen hasi ginen leku arraro batera iritsi arte. Han geundela oreina batzuen aztarnak ikusi genituen eta oinatzak han bukatzen ziren. Olentzerok norbaiti deitu zion txistuká, eta txakur bat azaldu zen, Mari Domingik esan zidan Argi deitzen zela, eta beraien basoko laguna zela. Argik esan zuen bezala usaina goraka zioen eta orduan Olentzerok esan zuen:

-Ez da posible, nazkatuta nago!-

Mari Domingik belar bat eman zion Olentzerori eta lasaitu egin zen. Mari Domingik laminei laguntza eskatu zion irrintzi batez, eta segituan etorri ziren, eta galdetu zuten:

-Laguntzarik behar duzue?

Eta Mari Domingik esan zuen:

-Bai, nahiko genuke zubi bat eraikitzea usain hau duen pertsonara iristen dena-. Laminek gu konturatu aurretik zubia eginda zuten.

-Agur kontuz ibili, eta ondo eutsi.-

Guk ez genekien zertaz ari zen hitz egiten, baina denbora galdu gabe zubira igo ginen. Igo eta herri elurtu batean azaldu ginen, baina Argiri esan genion bilatzeko eta etxe gorri eta zuri batera eraman zigun, Hansel eta Gretelen etxea ematen zuen. Atea jo, eta postontzia lapurtu zuen pertsona atera zen, eta Olentzerok esan zion:

-Lotsagabea halakoa! Nola okurritzen zaizu postontzia lapurtzea!-

-¿Qué has dicho?- erantzun zuen gizonak.

-Ze "Que has dicho", zer ari zara esaten?- esan zion Olentzerok.

-Eman nire postontzia!- errepikatu zuen Olentzerok.

Mari Domingik Olentzerori esan zion:

-Olentzero, esailozu belar hau jateko, eta horrela euskaraz hitz egingo du.-

Olentzerok keinuka esan zion belar hori jateko, eta jan egin zuen. Segundo batzuk geroago Olentzerok berdina esan zion, eman nire postontzia eta harek erantzun zuen:

-Zer esan duzu, ez dizut ondo ulertu?-

Eta Olentzerok erantzun zuen:

Bueno orain ulertzen didazula, dena esplikatu behar dizut, bueno gu gure etxean gaudenean bisita bat etorri zitzaigun, zein izango zen? Bueno ba bisitari misteriotsu horrek postontzia lapurtu zigun, eta orain hemen gaude postontzi horren bila, zer pena ezta, ah eta zein da zure izena?-

Gizona barrura sartu zen erantzun gabe. Bueltatu zenean postontzia eman zigun barkamena eskatuz, eta triste. Bagindoazenean Olentzerok galdetu zion:

-Zergatik lapurtu diguzu postontzia?- Eta berak erantzun zuen:

-Niri postontzia desagertu zait eta beste baten bila joan naiz zuen herrialdera, baina ulertzen dut zuek ere behar duzuela, orduan onartzen dut gaizki egin dudala eta bueltatu egiten dizuet, pentsatzen det haurten emen ez ditugula gabonak ospatuko, agur-. Joan aurretik Marik materiala eman zion beste postontzi bat egiteko eta orduan saltoka hasi zen eta eskerrak eman zizkigun, eta esan zuen:

A, Bizar Zuri deitzen naiz.

Poz-pozik agurtu zigun. Ni etxera bueltatu nintzen, neka-neka eginda nengoen eta lo segituan hartu nuen. Gabonak pasa eta gabon-gauean janaria jarri nuen eta lotara sartu nintzen urduri. Hurrengo egunean telebista piztu nuen ea zerbait agertzen zen. Aško itxaron nuen baina ez zen ezer atera, baina momentu batean albistegian hau agertu zen:

-Pobrezia dagoen herri eta hiri guztietan irtenbide bat gertatu da Olentzerok eta Mari Domingik esan dutenez. Neska baten oparia da baina ez dakigu nor den. Saltoka nire amarengana joan nintzen eta dena kontatu nion.

Irati Lasa Ormazabal

Murte LH. 6

GABONETAKO ELKARTASUNA

Gure arak bati esaten dute, : "Ez egin hesteci zuri, egitea gertatzen ez zaitzuna." Eta hori azaltzera nor. Hemen, E uskadin lege eta eskulide onak ditugu, baina hestelenialde hatastun er. Kurtsu honetan, Mexikoko ikasle hori bati etorri da gure gelara, gure laguna egin da oras, baina hori, ez da heste eskala hatastun gertatzen.

Beste hennialde hatastun, imigrantiek gairiki pasatzen ari dira eta gu alde, ondo lizi gora. Beraiekiko ez dugu ezert egiten, eta hori ez da hiderkeo. Beraiek gu baino gehiago sufritzen ari dira. Ezin dugu hestekin sartu azal kolore desberdina izateagatik. Hori aldatzen badugu, mundu hake bat lortu dezakegu. Guk gure artean ondo jokatuta behar dugu.

Eta orain, aurtengo galaratan, denak gainontzekoei errespetatzea ekartzen dut danok ondo jokatzea, elkartzunaz eta maitasunaz. Zumarraga Urteko listanleek ondo eramatea, eta maitasunaz betetako gabonak igarotzea.

Izen-abizenak: Ante Iglesias Encinas Aguado
Adina : 10 urte Maila : 5. A LH